

Gure enpresak bilatzen duena da diru gehiegi erabili barik egunero kontsumitzen dituzun produktuak erosi ahal izatea; beraz, familia askoren arazo ekonomikoak murriztera lagunduko du. Gainera, ez dugu bakarrik janaria salduko.



Gure enpresaren produktuak hainbat desberdintasun ditu antzekoak diren beste enpresarekiko. Bat gure produktuen iraungitze-data oso baxua da, hau da, produktuak iraungitzen dira beste enpresenak baino lehenago; horregatik, hori konpentsatzeko produktuen prezioak baxuagoak ere izango dira eta horrela pertsonak ez dute diru gehiegi ordainduko. Gainera, zenbat eta hurbilago egon iraungitze-datatik, orduan eta prezioa baxuagoa izango da hurrengo argazkian ikusten den adibidean bezala.



Bereiztuko gaituen ezaugarria kuantitatiboa izango da batez ere zeren eta gure produktuen prezioa askoz baxuagoa da beste denda askorekin konparatuta lehen azaldutako iraungitze-dataren bidez. Izan ere, iraungitze-data hau oso hurbil dagoenez gero gure produktuen kalitatea jaistera gerta liteke; haatik, produktuen jatorrizko kalitatea mantentzen saiatuko gara. Azkenik, produktuak hainbat denda desberdinetatik lortuko ditugunez gure produktuen dibertsitatea handia izango da marka desberdinei dagokionez.



Azken argazki hau nahiz eta ez izan gure dendan salduko zena (hilabetearen arabera aldatuz joango dira) produktuen dibertsitate handia transmititzen du eta marka asko daudela hauen artean eta ez bakarrik gutxi batzuk.